



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2019ko urriaren 31, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:30

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oriden.

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oriden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieto, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Prieto Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi.

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2019ko irailaren 26ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, EAJ talde politikoko ordezkarien izendapena Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordean.



- 3.- Onartzea, egoki bada, Kostaren eta Itsasoaren Iraunkortasun Zuzendaritza Nagusiak emandako baldintza eta preskripzioak, 1965eko abenduaren 10eko Ministerio Aginduen bidez emandako kontzesioa luzatu eta aldatu ahal izateko. Kontzesio horrek, gaur egun, eremu itsas-lehortarraren jabari publikoko 295 m²-ko azalera hartzen du, Orioko Antilla hondartzarako zerbitzuak emateko instalazioen eraikin baterako.
- 4.- Onartzea, egoki bada, EH BILDU talde politikoak aurkeztutako mozioa, Gipuzkoako Foru Aldundiak hondartzetako salbamendu- eta sorospen-zerbitzua kudeatu dezala eskatzen duena.
- 5.- Onartzea, egoki bada, «Xua gurasoekin etxera» herri-ekimenak aurkeztutako mozioa.
- 6.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2019KO IRAILAREN 26KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarrak 2019ko irailaren 26an egindako ohiko bilkurako akta.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ TALDE POLITIKOKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO ZUZENDARITZA BATZORDEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordean EAJ talde politikoaren ordezkariak izendatzeko proposamena egiten da, kontuan hartuta Lourdes Salsamendi Goñi ordezkari titularra Urola Kostako Udal Elkarteko buru izendatu dutela eta, ondorioz, haren ordezkoa izendatu behar dela Zuzendaritza Batzordean.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



1.- **ANDONI TORRES FERNANDEZ** zinegotzia (EA) **IZENDATZEA** Orioko Udalaren ordezkari titular Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordean, Lourdes Salsamendi Goñi zinegotziaren ordezkari.

2.- **AMAIA GOZATEGI URBIETA** zinegotzia (EA) **IZENDATZEA** Orioko Udalaren ordezkari ordezkari Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordean, Andoni Torres Fernandez zinegotziaren ordezkari.

3.- **ONARTZEA, EGOKI BADA, KOSTAREN ETA ITSASOAREN IRAUNKORTASUN ZUZENDARITZA NAGUSIAK EMANDAKO BALDINTZA ETA PRESKRIPZIOAK, 1965EKO ABENDUAREN 10EKO MINISTERIO AGINDUAREN BIDEZ EMANDAKO KONTZESIOA LUZATU ETA ALDATU AHAL IZATEKO. KONTZESIO HORREK, GAUR EGUN, EREMU ITSAS-LEHORTARRAREN JABARI PUBLIKOKO 295 M2-KO AZALERA HARTZEN DU, ORIOKO ANTILLA HONDARTZARAKO ZERBITZUAK EMATEKO INSTALAZIOEN ERAIKIN BATERAKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Kostaren eta Itsasoaren Iraunkortasun Zuzendaritza Nagusiak 2019ko maiatzaren 14ko dataz ezarri ditu hainbat baldintza eta preskripzio, 1965eko abenduaren 10eko Ministerio Aginduen bidez emandako kontzesioa luzatu eta aldatu ahal izateko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza batzorde informatzaileak 2019ko urriaren 11n emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Kostaren eta Itsasoaren Iraunkortasun Zuzendaritza Nagusiak 2019ko maiatzaren 14an emandako baldintza eta preskripzioak, 1965eko abenduaren 10eko Ministerio Aginduen bidez emandako kontzesioa luzatu eta aldatu ahal izateko. Kontzesio horrek, gaur egun, eremu itsas-lehortarraren jabari publikoko 295 m2-ko azalera hartzen du, Orioko Antilla hondartzarako zerbitzuak emateko instalazioen eraikin baterako.

4.- **ONARTZEA, EGOKI BADA, EH BILDU TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK HONDARTZETAKO SALBAMENDU- ETA SOROSPEN-ZERBITZUA KUDEATU DEZALA ESKATZEN DUENA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

Jakina da Gipuzkoako hondartzetako sorospen zerbitzuak, beste zenbait zerbitzurekin batera, udalek ematen eta ordaintzen dituztela. Udalek finantzatzen dute, gehienbat, hondartzak egoera eta baldintza egokietan egotea, erabiltzaile gehienak udalerrikoak ez badira ere, maiz izaten baitira Euskal Herrikoak edo



atzerritarrak. Herri horietako asko, gainera, txikiak dira, aurrekontu zein diru iturri mugatuak dituzte eta hondartzen mantenuak gastu handia suposatzen die biztanleko.

Jakina da, gainera, sorospen zerbitzu horietan lanean ari diren langileen lan baldintzak ez direla berdinak herriz herri, eta ez dutela beti lanaren duintasunik bermatzen.

Egoera hori aintzat hartuta, ondorengo mozioa aurkezten dugu udalbatzarrak aztertu eta, hala badagokio, onartu dezan:

- 1. Orioko Udalak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, hondartzetako sorospen zerbitzua kudeatzen dugun udalokin elkarlanean, beharrezko kudeaketa egin dezala, Gipuzkoako hondartzetako sorospen zerbitzuak aldundiak kudea ditzan.*
- 2. Orioko Udalak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, hondartzen sorospen zerbitzua udalek kudeatzen duten bitartean, dirulaguntza lerro bat ireki dezala horien % 100ko finantziazioan laguntzeko.*
- 3. Orioko Udalak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, Gipuzkoako hondartzetako sorospen zerbitzua kudeatzeko behar diren kontratu edota hitzarmenetan, 11/2014 Foru Araua ezartzeko. Horren bidez, foru sektore publikoko kontratazioan, erosketak publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak berma ditzan.*
- 4. Orioko Udalak mozio honen berri emango die Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei.*

Beñat Solaberrieta zinegotziak (EH BILDU) hartzen du hitza eta adierazten du hondartzek balio naturalak eta ingurumenekoak dituztela, eta Orioko Udalak bere gain hartzen duela Orioko Antilla hondartzako dutxa, komun eta pasabideen instalazioa; adierazten du, baita ere, 2019an Orioko Antilla hondartzako salbamendu- eta sorospen-zerbitzuaren kostua 116.000 eurokoa izan dela Orioko Udalarentzat eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eman duen dirulaguntza 9.000 eurokoa baizik ez dela izan eta, hortaz jaitsi egin dela Aldundiak zerbitzu hau emateko egiten duen ekarpen ekonomikoa: kostuaren %10etik %7,5era.

Azkenik, adierazten du preskripzio teknikoan agirietan gizarte-klausulak sartzeak badituela aurrekariak, Bizkaiko Foru Aldundian.

Lourdes Salsamendi zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du, Gipuzkoako Foru Aldundiak hondartzetako salbamendu- eta sorospen-zerbitzuaren kostua bere gain hartzea lortuko balitz, bere talde politikoaren iritziz, beharrezkoa izango litzatekeela Gipuzkoako hondartza bakoitzaren berezitasunak kontuan hartzea eta,



gainera, udalek ahotsa izateko eskubidea beharko luketela langileen kontratazioaren kudeaketan.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, aurkeztutako mozioa ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA EH BILDU talde politikoak aurkeztutako mozioa, Gipuzkoako Foru Aldundiak hondartzetako salbamendu- eta sorospen-zerbitzua kudeatu dezala eskatzen duena, goian jasota dagoen bezalaxe.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, «XUA GURASOekin ETXERA» HERRI-EKIMENAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

Orioko Udalbatzarrak Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangaren eta batez ere urtarrilean 3 urte egitean gurasoengandik bananduko duten euren alaba Xuaren egoera kontuan hartuta, ondorengo MOZIOA babesten du:

Dagokien autoritateei eskatzea behar dituzten neurriak har ditzatela, legedia kontuan hartuz ahal bezainbeste bermatzeko adin txikikoa eta bere gurasoen arteko harremana, zaintza eta gertutasuna; familiaren batasuna eurek sustraituta dauden ingurune sozialean lagunduz eta adin txikikoaren interes gorena babestuz

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, aurkeztutako mozioa ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA «Xua gurasoekin etxera» herri-ekimenak aurkeztutako mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

Alkateak hartzen du hitza eta eskerrak ematen dizkie publikoki «Xua gurasoekin etxera» herri-ekimenari eta udalbatzarrari, mozioa aho batez onartua izan dadin egin duten ahaleginagatik.

Gai-zerrendatik kanpo, udalbatzarrak ondoko erabakia hartu du, alde zuzenetik, **AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz], urgentziazkotzat jo ondoren:

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, AUZITEGI GORENAK KATALUNIAKO PROZESUAZ EMANDAKO EPAIARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:



ESPAINIAKO AUZITEGI GORENAK KATALUÑAKO PROZESOARI BURUZ EMANDAKO EPAIAREN AURREAN, ORIOKO UDALBATZARRAK HONAKO HAU ADIERAZI NAHI DU.

- 1. Ziurtatzen du demokraziaren adierazpen baketsua, indibiduala zein kolektiboa, gauzatzea eta herriari hitza ematea ez dela delitua. Hori horrela, urriak 1eko erreferenduma tresna demokratiko eta zilegia izan zela, eta Kataluniak bezala Euskal Herriak ere, berezkoa dutela etorkizuna erabakitzeke eskubidea.*
- 2. Argi eta garbi adierazten du ezin direla justifikatu Auzitegi Gorenak eta Estatuko botereek Kataluniako agintari eta gizarte eragileei bizkarreratutako auzia eta ezarritako zigorrak.*
- 3. Nabarmendu nahi dugu, Kataluniako Procesaren aurkako auziak eta epaiak Zuzenbide Estatuaren itxuragabetzea dakartela eta ezbaian jartzen dutela espainiar demokraziaren homologazioa nazioartean.*
- 4. Azpimarratzen dugu euskal herritarrei zuzenean eragiten digula Estatu espainiarraren erantzun bortitzak, izan ere herrien borondatea era demokratiko eta baketsuz erabakitzea mozten baitu eta arazo politikoari tribunalen indarrez, 155. Artikuluaren ezarpenez edo erabakitze eskubidearen alde egiten dutenei edonolako neurri bidegabeak ezarriz irtenbide elkarrizketatu eta negoziatua bilatu ordez eta herrian galdetu beharrean.*
- 5. Estatuko botereei eskatzen diete, espetxean dauden preso politikoak berehala aske utz ditzatela eta era berean, erbesteratu politikoen aurkako auzibideak bertan behera utz ditzatela.*
- 6. Orioko Udalbatzarrak, elkartasuna adierazten diete Kataluniako preso eta erbesteratu politikoei nahiz haien etxekoei hala nola Kataluniako herriari eta erakundeei.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, aurkeztutako mozioa ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU**, Anuska Esnal Oliden (EH BILDU), Ainara Munduate Iguaran (EH BILDU), Xabier Ibarguren Azkue (EH BILDU), Beñat Solaberrieta Albizu (EH BILDU), Bakarne Oliden Albeniz (EH BILDU), Bittor Andres Alkorta (EH BILDU), Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Andoni Torres Fernandez (EAJ), Jon Basurko Sarasua (EAJ), Amaia Gozategi Urbieta (EAJ), Jose Javier Gomez de Segura Arce (EAJ) eta Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN), [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA EAJ talde politikoak aurkeztutako mozioa, Auzitegi Gorenak Kataluniako prozesuaz emandako epaiari buruzkoa, goian jasota dagoen bezalaxe.

Ana Priede Merchán zinegotziak (PSE-EE-PSOE) ez du parte hartu bozketan.



6.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ana Priede zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza, eta adierazten du EH BILDuko zinegotziek eta berak irailaren 30ean Urola Kostako Udal Elkartearen Batzar Nagusian gezurrezko informazio bat jaso zutela. Informazio horrek EAJko Andoni Torres zinegotziak idatzitako testu bat jasotzen zuen eta testu horretan esaten zen ORAIN taldeko zinegotziak eta Ana Priede zinegotziak diru gehiago jasotzen dutela EAJ talde politikoko zinegotziek baino. Ana Priedek guztiz ukatzen du hori eta esaten du berak ez duela Udaletik hileko 750 euro jasotzen.

2019ko uztailean, berak 350 euro jaso zituen, eta ORAIN taldeko Iparragirre zinegotziak, berriz, 500 euro jaso zituen; 2019ko abuztuan, Priede zinegotziak 400 euro jaso zituen, eta ORAINeko zinegotziak 550 euro; 2019ko irailean, azkenik, Priede zinegotziak 300 euro jaso zituen eta ORAINeko zinegotziak 450 euro. Beraz, datuak ikusita, zalantzarik gabe frogatuta geratzen da Priede zinegotziak ez dituela Udaletik hileko 750 euro kobratzen, baizik-eta kantitate aldakor bat, Udalean betetzen dituen zinegotzi-lanen arabera.

Bestalde, Ana Priede zinegotziak adierazten du EAJ talde politikoak honako diru-kopuruak jaso zituela 2019ko uztailean, abuztuan eta irailean: 1.150 euro, 1.150 euro eta 1.050 euro, hurrenez hurren.

Ana Priede zinegotziak adierazten du guztiz ukatzen duela Andoni Torres zinegotziak idatzitako informazioaren bigarren puntua, EH BILDU talde politikoaren proportzionaltasunari eta berdintasunari dagokiona. Izan ere, bere ustez, EH BILDuren gobernua proportzionala eta eskuzabala da, EAJ talde politikoa osatzen duten zinegotziek jasotako diru-esleipenei dagokienez; PSE-EE-PSOE talde politikoak egin zuen diru-esleipenei buruzko proposamen hori, gainera. Kontuan hartzeko modukoa da Beñat Solaberrieta zinegotziak (EH BILDU), Ingurumena, Obrak eta Zerbitzuak batzorde informatzailearen buruak, honako diru-esleipenak jaso zituela uztailean, abuztuan eta irailean: 250 euro, 200 euro eta 200 euro, hurrenez hurren. Bestalde, Xabier Ibarguren zinegotziak (EH BILDU), Kultura, Gazteria eta Jaietako batzorde informatzaileko buru denez, 2019ko uztailean, abuztuan eta irailean 250 euro, 150 euro eta 200 euro jaso zituen, hurrenez hurren. Horrek guztiak erabat frogatzen du EH BILDuko zinegotzi horiek EAJ talde politikoa osatzen duten zinegotziek baino diru gutxiago jaso dutela, nahiz eta Udaleko batzorde informatzaile banako buru izan.

Ana Priede zinegotziak adierazten du, baita ere, Andoni Torres EAJko zinegotziak «botoak erostea» deitu diola egoera horri, eta Ana Priede zinegotziak irmo adierazten du berak ez duela inoiz botorik saldu, printzipio-kontu batengatik; beti babestu izan dituela oriotarren aldeko proposamen onuragarri guztiak, eta Urola Kostako Udal Elkarteko Batzar Nagusian bere botoak EAJ alderdiari egin ziola mesede, Udal Elkarteko presidentetza eta presidenteordetza lortu zituen-eta.



Bestalde, Ana Priede zinegotziak adierazten du 2015-2019 agintaldian, oposizioko zinegotzi guztiek hilean 200 euroko kopurua jaso zutela, EAJ talde politikoak bere kabuz hartutako erabaki baten ondorioz; beraz, liberatu ez ziren zinegotziek, guztien artean, 2.300 euro/hileko jaso zituzten. Agintaldi honetan, berriz, zinegotzi ez-liberatuek honako diru-esleipenak jaso dituzte uztailan, abuztuan eta irailean: 2.500 euro, 2.450 euro eta 2.200 euro, hurrenez hurren; beraz, benetako aurrezpena talde politikoek jasotzen dituzten diru-esleipenetan izan da: aurreko agintaldian, talde politikoek hileko 2.700 euro jasotzen zituzten eta oraingo agintaldian, berriz, hileko 1.700 euro. Era berean, Ana Priede zinegotziak datu ekonomiko hauek eman ditu:

2015-2019 agintaldian, zinegotzi liberatuek 6.794,57 euro/hileko jaso zituzten, eta agintaldi honetan, zinegotzi liberatuek 6.529 euro/hileko jasotzen dituzte.

Bukatzeko, Ana Priede zinegotziak irmo adierazten du berak ez duela hileko 750 eurorik kobratzen, eta, bestalde, EAJ talde politikoari ez zaiola ezer jaitsi eta ez zaiola ezer gehitu.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoa ez dela sartuko diru-esleipenen gaian, zeren eta udalbatzarretako eta batzorde informatzaileetako parte-hartzeak hilabetea bukatutakoan ordaintzen baitira. Adierazten du berak Urola Kostako Udal Elkartearen irailaren 30eko Batzar Nagusian gertatutakoaz hitz egin nahi duela: norbaitek filtratu zuena elkarriketa pribatu bat zen eta horren edukiak ez dauka zerikusirik EAJ talde politikoarekin. Adierazten du, azkenik, Ana Priede zinegotziak ez duela berarekin hitz egin nahi izan gaiari buruz.

Aipamenengatik, Andoni Torres zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du herritar batek zinegotziek jasotzen dituzten diru-esleipenen datuak eskatu zizkiola, eta berak emandako iritzia pertsonala dela eta ez EAJ talde politikoarena. Adierazten du, baita ere, Ana Priede zinegotziak tranpa txiki bat egin duela emandako datu ekonomikoei buruz: udako hilabeteetako datuak eman ditu eta hilabete horietan ez dira batzorde informatzaile guztiak biltzen; beraz, ikusi beharko da datozen hilabeteotan zer gertatzen den. Bestalde, Andoni Torres zinegotziak dio «diru-esleipen iraultzaileak» esapidea EH BILDU talde politikoarena dela, eta berak adierazi zuela «boto-erosketa ahalegin» baten aurrean geundela eta ez «boto-salmenta» baten aurrean. Adierazten du, azkenik, datuak irailaren 30eko 09:00etan eman zituela eta 19:01ean filtratu zirela.

Aipamenengatik, alkateak hartzen du hitza eta berresten du «diru-esleipen iraultzaileak» esapidea EH BILDU talde politikoak erabili zuela. Esaten du, baita ere, Ana Priede zinegotziak jasoko dituen diru-esleipenak hileko 750 eurokoak direla gehienez, eta Jose Angel Iparragirre zinegotziak jasoko dituenak, oster, hileko 850 eurokoak direla gehienez. Alkateak azpimarratzen du, bestalde, aurreko agintaldian, alkateak dedikazio osoa izan zuela, eta UDALHITZeko ordainsari orokorren 28. maila zeukala hasieran.



Alkateak adierazten du, baita ere, bere ustez, ez dela boto-erosketarik izan, eta, zalantzarik ez dagoela gertakari honetan: joan den irailaren 30ean, 19:01ean, EH BILDUko zinegotziek eta Ana Priede zinegotziak whatsapp-mezu bat jaso zuten Andoni Torres zinegotziak idatzitako testuarekin, eta, ordurako, Ana Priede zinegotziaren botoa emanda zegoen eta boto hark ahalbidetu zuen EAJ alderdiak Urola Kostako Udal Elkartearen presidentetza eta presidenteordetza eskuratzea.

Bukatzeko, alkateak dio agintaldi honetan garrantzi handiagoa ematen zaiola zinegotziek egindako lanari, talde politiko bakoitzaren diru-esleipenari baino. Gero, zinegotzi bakoitzak erabakiko du, bakarka, diru-esleipena beretzat hartzen duen edo bere alderdi politikoari ematen dion.

Ana Priede zinegotziak berriro hartzen du hitza, eta adierazten du aurreko agintaldian 200 euro/hileko jasotzen zituela, 8 batzorde informatzailetara, udalbatzarrerara eta abarretara joateagatik, eta horrek EAJ talde politikoaren oniritzia izan zuela. Orain, berriz, EAJ taldeko zinegotziek hilean 200 euro jasotzen dituzte eta gaizki iruditzen zaie.

Aipamenengatik, Beñat Solaberrieta zinegotziak (EH BILDU) hartzen du hitza, adierazteko 2019ko uztaillean eta abuztuan udaleko batzorde informatzaileak guztiz operatiboak izan direla eta, batzorde jakin batean, batzorde-bilera gehiago egin direla lau hilabetetan EAJko agintaldi osoan baino.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, udalbatzar honetan gertatutakoak zapore gazi-gozoa utzi diola adierazteko, eta, aldi berean, adierazten du mozioak ez direla neurri berean lantzen. Hala ere, adierazten du «Xua gurasoekin etxera» herri-ekimenak aurkeztutako mozioan alde aurretik lan ikaragarria egin dela.

Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza, oster, eta adierazten du aurrerantzean ere Udalari dagozkion gaiak udalbatzarretan planteatuko dituela zuzenean.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak (ORAIN) hartzen du hitza eta adierazten du agintaldi honetan negoziazioak abiatu zirela diru-esleipenak talde politiko guztien artean adosteko eta bai Ana Priede zinegotzia eta bai bera prest zeudela beren diru-esleipenak murrizteko, baina, azkenean, EAJ talde politikoak ez zuela inolako adostasunik lortu nahi izan.

Adierazten du, baita ere, agintaldi honetan aukera daukagula adostasunez eta zintzotasunez lan egiteko, eta berak ez zuela zuzenean jaso aipatu den whatsapp-mezua, baizik-eta berbidali egin ziotela. Adierazten du, bukatzeko, zinegotziei berriro eskatzen diela udalbatzarrerako mozioak garaiz aurkezteko, ahalik eta adostasun handiena lortu ahal izateko.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsona batek hitza hartu eta gero, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio.



ORIOKOU DALA



Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,